



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

Prensa-oharra

## **Ahaldun Nagusiak deia egin deutse taldeei, hilabete batzuk barru Aurrekontuaren berrikuspena negoziatzeko**

- **Lehenengo, urteko lehenengo seihilekoko zerga nagusien diru-bilketearen emoitzak ezagutu gura ditu**

**Bilbon, 2012ko bagilaren 28an.** Bizkaiko Ahaldun Nagusiak, José Luis Bilbaok, gaur, Abellanedako Batzarretxean egindako osoko batzarrean, dei egin deutse Batzar Nagusietako talde guztiei, Aldundiaren 2012rako aurrekontuaren doikuntza negoziatzeko, egungo krisi ekonomikoaren testuinguruan. Bilbaok Talde Sozialistak egindako itaun bati erantzun deutso, izan be, “kezkatuta” agertu da urteko lehenengo lauhilekoan zerga-bilketeak %4,5 behera egin dauala jakin izan dauanean; gainera, maiatzera artekoa %5,3koa da. “Eskua emon gura dot”, egoera ekonomikoa ez dalako bape “egonkorra”, adierazo dau Bilbaok.

Dana dala, Ahaldun Nagusiak ohartarazo dau oraindik “ez dala unea” Bizkaiko errealidadea “mahai gainean” jarteko. Aldundiaren asmoa da txosten “zehatz” bat bialdutea Batzar Nagusietako talde guztiei, Ondarearen gaineko Zergaren, PFEZen eta Soziedadeen gaineko Zergaren diru-bilketearen bilakaera eta abenduan Batzar Nagusiek onartutako neurri fiskalen ondorioak zeintzuk diran jakin ondoren.

Euskal Sozialisten Taldea bat etorri da erantzunagaz. Iñaki Egaña bozeramaile sozialistak eskaintza onartu izana eskertu deutso. “Eskua emoten deusut, akordiorako momentua da-eta”, Aldundiari leporatu ostean diru-sarrereak puztu dituala eta 2012ko aurrekontuak “garrantzi txikikoak” zirala. Erantzunen txandan, José Luis Bilbaok ukatu egin dau egoera halakoa zanik, izan be, aurrekontuak urrian egin ziran ordura arteko aurreikuspenakaz, eta, ondoren, Finantzen Euskal Batzordeak onartu zituan, eta organo horretan dagoz, hain zuzen be, hiru foru aldundiak eta Eusko Jaurlaritza.

### **“Atsedeen” programak, mendekotasunen bat daukien personak jagoleentzat**

Batzarra goizeko 9:00etan hasi da Bizkaiko Talde Popularraren itaun batez, mendekotasunen bat duten persona nagusientzako “atseden” programa egitearen gainean; beste aukera batzuk be kontuan hartzea gura dabe, eta ez bakarrik programa honetan jasota dagoana, hain zuzen be, egonaldiak egoitzetan, izan be, “ez dabe balio urtenbide moduan kasu guztietan”, adierazo dau Eduardo Andrés ahaldunak. Gizarte Ekintzako diputatuak, Pilar Ardanzak, erantzun deutso, esanez, Aldundiak atsedeen programa bat baino gehiago ipiniko dauala martxan, mendekotasunen bat daukien personak jagoten dabenentzat. Eguneko hiru zentrok egingo dabe lan hori garagarrietik



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

aurrera, programa experimental baten. Gainera, iragarri dau azken hiruhilekoan beste esperientzia pilotu bat garatuko dabela Cáritas eta ITG taldeagaz, irabazi asmorik bako erakunde horreetako boluntarioak mendekotasunen bat daukien personeren etxeetara joan daitezcan, haren jagoleek atsedean hartzeko aukerea euki daien.

### **Lleuri II-Zuatzuko zabortegia (Leioa)**

Beste itaun baten bitartez, Talde Popularrak azalpenak eskatu ditu Aldundiak 2001etik Arteako merkataritza-gunean (Lleuri II-Zuatzu (Leioa) itxitako uri eta industria zaborrak kontrolatzeko egin dituan lanen gainean, izan be, Europako Batzordearen ebazpen baten arabera, ez dira Europako ingurumen-zuzentzarau batzuk bete. Lehendakaritzako diputatuak, Juan María Aburtok, adierazo dau ez jagokola Aldundiari auzi hori ebaztea, ez dauka-eta ia eskumenik gai horretan. “Eskaerea ez da foro egokian aurkeztu; Eusko Jaurlaritzan aurkeztu behar da”.

### **Metropoliaren Hegoaldeko Saihesbidea**

Era berean, Bildu Taldeak gaur egun Metropoliaren Hegoaldeko Saihesbideak daukan trafikoaren bolumenari buruzko informazioa eskatu dau, eta zelan eragiten deusan bide honen trafiko-bolumenaren aurreikuspenak ez beteteak –Aitor Torre ahaldunak %44koa dala esan dau–, “Supersur” dalakoaren finantza-plana beteteko orduan. “Aurreikuspenak egunean 23.500 ibilgailukoak ziran, eta urtarrilean, 10.366 ibilgailu izan ziran”.

Itziar Garamendi Garraio diputatuak adierazo dau aurreikuspen horreek 2004an egin zirala, eta 2008az geroztik, “trafikoa murrizten joan dala apurka-apurka”; %25 murriztu dala esan dau. Garamendik aitortu dau, garraiolarien deskontuen aplikazioagaz batera, orokorrean mobikortasunaren murrizketeak diru-sarrerei be eragiten deusela, 6 milioi euro ingurukoak izango dira-eta. Diputatuak esan dau diru-sarreraren murrizketa horrek ez deusala eragingo finantza-planari; izan be, obrak lizitetako orduan Aldundiak aurreztu zituan 172 milioi euroakaz “konpentsauko” da. Datu horreek emon ostean, diputatuak adierazo dau Metropoliaren Hegoaldeko Saihesbidea “behar bezala beteten dabilela helburuak, besteak beste, kamioien trafikoa desbideratzea”; dana dala, trafiko hori “gorantz” doa oraindik, izan be, apirilean 4.400 ibilgailu astun izan ziran egunean, urte hasieran baino ia mila gehiago.

### **Bizkaikoa**

Era berean, joan dan bagilaren 21eko osoko batzarrean Aldundiak Bizkaikoa foru soziedadearen lehenengo 16 jarduera-hilabetei buruz emon zituan azalpenak entzun ostean, Bizkaiko Talde Popularrak mozino baten bidez eskatu eban Batzar Nagusietako



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

talde bakoetako batzarkide bat joan ahal izatea entzule lez Bizkaiko museoen koordinazioaz arduratzen dan soziedade horren Administrazio Kontseiluaren batzarretara, betibe, informazioa zuzenean eskuratu ahal izateko. Azkenean, popularrek kendu egin dabe mozinoa, Euzko Abertzaleak Taldeko ahaldun Lorea Bilbaori entzun ostean; izan be, arloan adituak diranen parte-hartzea proposatu dau, Batzar Nagusietako taldeek izendatutakoak, erakundeak osotu behar dauan hurrengo Aholku Kontseiluan.

Batzarreko bozketa bakarria amaieran egin da. Osoko Batzarra Bizkaiko Talde Popularraren Arau-Proposamen bat baztertuz amaitu da; proposamenaren helburua zan Bizkaiko Batzar Nagusien Araudia aldatzea eta “kasu berezi batzuetan”, besteak beste, haurdunaldi kasuetan, aitatasun kasuetan, amatasun kasuetan edo gaixotasun larriko kasuetan, batzarretako botoa beste batzarkide batzuen esku itxi ahal izatea. Bai Bilduk eta bai Talde Popularrak proposamenaren aldeko botoa emon dabe, eta Euzko Abertzaleek eta Euskal Sozialistek kontrako botoa emon dabe; izan be, talde horreen arabera, kontu hau Araudiaren aldaketea eztabaidatzeko sortu beharreko Ponentzian aldatu behar da. “Mamiagaz baino gehiago, formakaz ez gatoz bat”, adierazo dau Iñaki Egaña bozeramaile sozialistak, eta proposamena babestu daben taldeak salatu ditu, akordioei kasurik ez egiteagaitik. Aizbea Atela ahaldun abertzaleak araudiaren aldaketea babestu dau gai honetan; “testuinguru orokorrean egin behar da, eta ez aldaketa zehatzetan”.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

**Nota de prensa**

## **El Diputado General emplaza a los grupos junteros a revisar conjuntamente las cuentas forales de 2012 en unos meses**

- **José Luis Bilbao quiere conocer primero los resultados de la recaudación de los principales impuestos en el primer semestre del año.**

**Bilbao, a 28 de junio de 2012.** El Diputado General de Bizkaia, José Luis Bilbao, ha emplazado hoy, en un pleno celebrado en la Casa de Juntas de Abellaneda, a todos los grupos junteros a negociar un encaje del presupuesto de la Diputación para el año 2012 en un contexto de crisis económica. Bilbao ha respondido a una Interpelación realizada para el Grupo Socialista, que se mostraba “preocupado” después de conocer el descenso de la recaudación de un 4,5% en el primer cuatrimestre del año, cifra que en mayo se situaba ya en el 5,3%. “Lanzo el guante” porque la situación económica es “convulsa”, ha manifestado Bilbao.

El Diputado General ha advertido sin embargo que todavía “no es el momento” para “poner encima de la mesa” la realidad de Bizkaia. La intención de la Diputación es enviar un informe “detallado” a todos los grupos junteros tras conocer la evolución recaudatoria del Impuesto de Patrimonio, el IRPF, el Impuesto de Sociedades y los efectos que tengan las medidas fiscales aprobadas en las Juntas Generales en el mes de diciembre.

El Grupo Socialistas Vascos se ha mostrado conforme con la respuesta. El portavoz socialista, Iñaki Egaña, ha agradecido que acepte el ofrecimiento. “Recojo ese guante ya que es el momento del acuerdo”, después de denunciar a la Diputación de “inflar” las previsiones de ingresos y de decir que los presupuestos de 2012 eran “papel mojado”. En el turno de réplica, José Luis Bilbao ha negado este hecho, ya que los presupuestos se confeccionaron en el mes de octubre con las previsiones de entonces y fueron después aprobados por el Consejo Vasco de Finanzas, órgano en el que están representadas las tres diputaciones forales y el Gobierno Vasco.

### **Programas “respiro” para cuidadores de personas dependientes**

El pleno, celebrado en la Casa de Juntas de Abellaneda (Sopuerta), que habitualmente cierra la primera etapa del “curso” parlamentario, ha comenzado a las 9 de la mañana con una Interpelación del Grupo Popular Vizcaíno sobre la elaboración de un programa “respiro” para las personas cuidadoras de mayores dependientes que incluya “otras opciones” a la única contemplada en este programa, como son las estancias en



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**B I Z K A I A**

residencias, ya que entienden que “no son una solución para todos los casos”, según el apoderado Eduardo Andrés. La diputada de Acción Social, Pilar Ardanza, ha respondido que la Diputación va a poner en marcha varios programas respiro para quienes cuidan a personas con dependencia. Tres Centros de Día efectuarán esta labor a partir de julio, en un programa experimental, y durante el último trimestre, desarrollarán otra experiencia piloto con Cáritas e ITG Taldea para que personas voluntarias de estas entidades sin ánimo de lucro, puedan acudir a los domicilios de las personas dependientes para que sus cuidadores tengan momentos de descanso.

### **Vertedero de Lleuri II - Zuatzu (Leioa)**

A través de otra Interpelación, el Grupo Popular ha reclamado explicaciones sobre las actuaciones que ha realizado desde 2001 la Diputación para controlar los residuos urbanos e industriales depositados en el área del Centro Comercial de Artea (Leioa), en el antiguo vertedero de Lleuri II - Zuatzu (Leioa), a la vista de la resolución de la Comisión Europea de ese año que denunciaba el incumplimiento de determinadas directivas europeas medioambientales. El Diputado de Presidencia, Juan María Aburto, ha manifestado que no le corresponde a la Diputación resolver este asunto, ya que apenas tiene competencias en la materia. “La petición no se ha presentado en el foro adecuado, debe ser el Parlamento Vasco”.

### **Variante Sur Metropolitana (VSM)**

El Grupo Bildu ha solicitado a su vez información sobre el volumen de tráfico que mantiene actualmente la Variante Sur Metropolitana, y en qué forma afectan el que no se cumplan las previsiones de tráfico de esta vía - que el apoderado Aitor Torre ha cifrado en un 44%- para cumplir el plan financiero de la llamada “Supersur”. “Las previsiones eran de 23.500 vehículos al día, y en enero nos encontramos con 10.366”.

La Diputada de Transportes, Itziar Garamendi ha manifestado que estas previsiones se hicieron en el año 2004 y que desde el año 2008 “vivimos un descenso paulatino del tráfico” que ha cifrado en el 25%. Garamendi ha reconocido que, junto a la aplicación de descuentos para los transportistas, la reducción de la movilidad en general afecta también a los ingresos de la VSM que serán de unos 6 millones de euros durante este año. La diputada ha manifestado que esta merma de ingresos no afectará al plan financiero, ya que se “compensa” con los 172 millones de euros que la Diputación se ahorró al licitar y adjudicar las obras.

Después de ofrecer estos datos, la diputada ha manifestado que la VSM está cumpliendo “satisfactoriamente los objetivos, entre los que se situaban desviar el tráfico de



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

camiones; un tráfico que “sigue subiendo”, ya que en abril fueron 4.400 vehículos pesados al día, casi mil más que al inicio del año.

### **Bizkaikoa**

Asimismo, después de escuchar las explicaciones de la Diputación en el pleno del pasado 21 de junio sobre el balance de los primeros 16 meses de actividad de la sociedad foral Bizkaikoa, el Grupo Popular Vizcaíno solicitaba a través de una moción que un miembro de cada grupo juntero pudiera asistir como oyente a las reuniones del Consejo de Administración de esta sociedad encargada de la coordinación de los museos vizcaínos, a fin de disponer de información de primera mano. Al final, los populares han retirado la moción después de escuchar a la apoderada del Grupo Nacionalistas Vascos, Lorea Bilbao, que ha propuesto la participación de expertos en la materia, nombrados por los grupos junteros, en el próximo Consejo Asesor que debe constituir la entidad.

### **Modificación del Reglamento de las Juntas**

La única votación de la sesión se ha producido al final. El pleno ha desestimado una Proposición de Norma del Grupo Popular Vizcaíno que pretendía modificar el Reglamento de las Juntas Generales de Bizkaia para que se permitiera delegar en otros compañeros el voto en los plenos en “supuestos especiales” como periodos de embarazo, paternidad, maternidad o enfermedad grave.

Tanto Bildu como el Grupo Popular han votado a favor de la proposición (sumando 15 votos), la cual ha sido rechazada por el rechazo de Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos (29 votos). Estos grupos han manifestado que esta cuestión debe modificarse en la Ponencia que se cree para debatir el cambio del Reglamento. “Más que en el fondo, estamos en desacuerdo en las formas” ha dicho el portavoz socialista, Iñaki Egaña, quien ha denunciado a los grupos que han apoyado la propuesta por saltarse los acuerdos. La apoderada nacionalista, Aizbea Atela, ha apoyado el cambio del Reglamento en este asunto, pero a su debido tiempo. “Debe realizarse en un contexto general y no a través de modificaciones puntuales”.